

PLASMAREN BIGARREN ERABILERA

SARRERA:

Plasma, odoleko %55a da, hori koloreko likidoa odolean aurkitzen da. Plasma odol zeluletan aurkitzen da. Honek globulo gorriak, plaketak eta globulo zuriak dira. Urez %90, mineralez eta proteina askoz osotuta dago, proteina honek organismoaren funtzionamendu onaren zaintzaren arduradunak dira. Honetatik inmunoglobulinak, koagulazio faktoreak eta albumina aurkitzen dira:

- Inmunoglobulinak, infekzioetatik babesten gaituezanak.
- Koagulazio faktoreak, plaketekin batera moztu edo zauri bat egiten dogunean koska gelditu egiten dabe.
- Albumina, farmakoak eta hormonak transportatzen dauz ehunetara eroaten.

Plasma donazioari dagokionez, 18 eta 70 urte artean euki behar dira plasma emoteko eta 50 kg baino gehiagoko pisua euki behar da. Gainera, osasun ona euki behar da eta emakumea izanda haurdun ez egotea. Odol talde guztiak balio dabe baina plasma emole unibersala AB taldea da, guztiakin bateragarria dalako, oso gitxi AB taldekoak izanik. Plasma behin emonda 15 egun itxaron behar dozuz beste dohaintza bat egiteko.

Pertsona batek erredura edo istripu larri bat jaso ondoren, plasmaren tranfusinoak, odoljarioak gelditzen laguntzen dau, baita odola bolumena berrezkuratzen ere.

Baliteke ere gaixoek plasmak dituen proteina batzuk soilik behar izatea. Kasu horietan proteinak plasmatik ateratzen dira eta "odol produktuak" izeneko sendagaiak egiten dira, beste pertsonen odoletatik soilik lortu daitezkeenak.

Gainera, kontuan hartu beharreko beste gauza bat, plasmaren epemuga da. Plasma 3 urte irauntzen dauz izoztuta mantentzen bada, aldiz, globulu gorrien kontzentratuak 42 egun irauntzen dabez, soluzio osasuntsu bateri esker. Be bai, plaketen kontzentratuak 5 egun irauntzen dabez, soluzio aditibo bat eroanez gero.

ADITUA:

Guk kontaktatutako aditua Judith Olmedo da. Bera haginlaria da eta bere lanean, plasma askotan erabiltzen dau, modu ezberdinetan. Adibidez, hezurak birsortzeko edo inplanteak ipintzerakoan inplantea aktibatu bako plasma inplanteak buztitzeko etalagungarriagoa izateko.

Aditu hau kontaktatzea erabaki dogu, ia egunero plasmarekin lan egiten daualako.



PROPOSAMENA:

Gure lehenengo ideia, plasma aplikazioa , tirta baten bidez izatea. Tirta hau, zauri baten ehunak arinago birsortu eta sendatu egingo ebazan, plasma barruan eroango ebanez.

Adituarekin hitz egin eta gero, gure ideia aldatu egin zan, berak esan euskun plasma tirtarekin ez zala zaurian geratuko beraz gel edo krema bat egitea proposatu euskun. Honez gain, plasma kantitateak argitu egin euskun, 3ml frakzio bateko plasma erabilia 6ml bigarren frakzioko plasma erabili behar zan. Gainera, esan euskun plasma likido edo gelatinosoa erabili ahal genduala. Gelatinosoa zana aktibatutako plasma zan, hau aktibatzeke kloruro kaltzikoa behar da, aldiz, likidoa dana aktibatu bakoa da eta efektu gitxiago daukala esan euskun.

Azkenean, gure taldeak pentsatu egin dau, plasma aplikazioa , krema baten bidez izatea. Krema hau, zauri baten ehunak arinago birsortu eta sendatu egingo dauz, plasma barruan eroango dauanez. Zauriaren tamainari dagokionez ez da egongo arazorik, puntoekin bateratu ezin diran zauriak, alde baten eta bestearen artean dagoan distantziagaitik edo azal faltagaitik.

HOBKUNTZAK:

Gure ustez gure proposamenak ekarriko dauzan hobekuntzak, hurrengoak izango da:
Ehunen birsorpen arinagoa eta arinago sendatzea.

KONTUTAN HARTU BEHARREKO FAKTOREAK:

Proiektu honetan kontuan hartu beharreko faktoreak hurrengoak dira:

- Azalera handiko pote bat edo gehiago non, elementuen erreakzioa eukiteko eta ondoren plasmarekin nahastean, zauriari aplikatzeko.
- Pote hauek , asko badira, espazio hotz bat beharko da ondo gorde ahal izateko.
- Honen diru kostua kremaren arabera alda daiteke, 6-10€
- Kremarentzako behar diran osagaiak, etxean egunero erabiltzen doguzan gauzak dira, beraz bakarrik gauza bat erosi behar dogu → Koko olio 2€

BIDERAGARRITASUNA:

Guk egin dogun proposamena nahiko bideragarria dala uste dogu , krema naturala izango dalako eta gainera etxean daukaguzan gauzekaz egin ahal dalako. Egia da, krema hau ezin izango zala etxean aplikatu, krema honek osasunean lan egiten dauan pertsona batek manipulatu behar izango ebalako, plasma sartu behar dalko. Baina gure ustez bideragarria izango zan, materialak eskuan eukinda. Krema hau egiteko, olioia, koko olioia eta berakatza behar dira. Hau guztia izanda, koko olioia lapiko baten sartu behar da ur-beroaldi bat emonda. Ondoren, berakatza txikitu behar da eta hori eginda olioia eta berakatz txikitua lapikoan sartu, sua jaitsi. Azkenengoz, guztia kristalezko ontzi batean sartu eta solidifikatu arte itxaron.

AURKEZPEN MODUA:

Triptiko baten bidez aurkeztea pentsatu egin dogu, horrela erakargarriagoa eta ulergarriagoa egin daitekelako.

BIBLIOGRAFIA:

<https://www.donarsang.gencat.cat/es/donacion-plasma/que-es/>

<https://www.donarsang.gencat.cat/es/donacion-plasma/quien-puede-donar-plasma/>

<https://www.grifolsplasma.com/es/about-plasma-donation/what-is-plasma>

[https://es.wikipedia.org/wiki/Plasma_\(sangre\)](https://es.wikipedia.org/wiki/Plasma_(sangre))

<https://www.muyinteresante.es/salud/articulo/plasma-sanguineo-funciones-y-composicion-681584966371>

Enara Ortuondo, Naroa Iglesias, Iara Jauregui eta Maria Gonzalez DBH4A